

Aitonaren ipuitxoak

Euzko Gaztedi, 7. zk., 1948-11: 18-20.

Ataun'go baserritxo batean gaude, irakurle. "Txori-bide" baserriko sukalde txukun da epel batean. Ez dezu otzarik nabaitzen! Bai-zera!. Sirrikito gabeko leio ta ate guziak itxita daude; egur-enbor ederra surtan, latzaren kakotik sintzilika dagoan pasi baten azpian.

Apaldu ondoren bere eguneroko erroaioa esan dute "Txori-bide"ko biztanleak. Amonatxoa, artilezko galtzerdi mardul batzuek bere semearentzat egiten arin dabilzki ainbeste lan egindako biatz ezurtzuak. Aiton paketzuek goza bere malean dauka bost bat urteko aurtxo musu gorri bat. Senar-emazte gazteak bere egin-bearrak betetzen ari dira: Bata bere irientzat uztarri bat konpontzen da bestea apal-ondoko lanak egiten.

Umeak bere besoetan daukan katua, etxeko xagu guziak izutu dituan "tximist" da. Aitonaren anketan etzanda dagoan txakurra, "erriko eixtaririk onena", aitonak itzetik ortzera dionez.

Ezagutzen dituzu "Txori-bide"ko biztanle guziak. Gaur an bizi dira denak beintzat; jose-Inixio, etxeko beste semea, bost urte ba'da, gutxienez, Ameriketara'ra joan zala ta...

Sukaldetik kanora otz egingo du noski, elurrak inguruko lur eta orri gabeko zugatzak zuriz eztali ditu ta zero goibel arek ez du oraingoz elurra besterik emango egun batzuetan... Ala dio aitonak eta eguraldi gaiaz zerbait badaki!

– Ia, aurreko ortz ori urten dan? –dio aitonak malean daukan Joxeba'ri.

Bi ortzatxo txuriren erdian utzun... txiki bat oraindik.

– Aterako al'da, aitona?

– Bai, alajaña!... Zerbait agiri ote dan nago! Sutara zarra bota eskero, berria nai ta nai ez urten bear!....

– Bañan ondo itzak esaten ez ba dira, ez da berririk urtetan –dio amonak bere begiak orrotzetatik jaso gabe.

– Ondo esan nituan, e!, aitona!....

– Ez dakit ba'... Ia, berriz esan surtara begira jarri ta, bada ez bada ere...

– "Andre Marie, tori zarra ta ekatzu berrie"...

– Ederki! Laizter degu ortz berria or, bitartean goso gutxi jan bear dezu...

– Aitona, ta zuk eta amonak ez al'zituzuten zurenak aurtara bota?...

– Ara, Joxepa-Inixi, erantzun zaiozu zuk orain! –dio algara batean aitonak.

– Umeenak bakarrikan biurtzen ditu suak ordea –dio amonatxoak, zer aundirik geiago esan ez dakiala.

– Ta ori, zergatik ba; aitona!...

– MAITAGARRI'k azapaldian umeei agindu zielako... Ara, entzun...

– Orain dala urte asko, gaur ez bezela MAITAGARRI'k laguntzen zguan garai zorientzu batean, inpernuko etzaiekin batera atzerritik eldu zan sendi batek artu omen zuan bizi-lekutzaz Gurmendi'ko sorgiñen arkaitz-zuloa.

Sorgin gaiztoen lagun ziran ango senar-emazte ta iru mutikoak; deabruak erabiltzen zuten antzeko ele gogor arrotz bat bezterik etzekiten; zertatik bizi ziran jakiten etzan erreza lenengoz, iñor etzan ausartzea bereak zituzten auzoko arkaitz-zuloaren inguruko lurrak lantzera joatia, ta arrotzak etziran beñere baserrietara etortzen...

Jones artzaiak gau batez entzun zuan bere izkera gogorraren berri besterik etzuten...

Gaur bezelako gau ilun da elurtzu batez... "Sasi-errota"ko atean.DAN! DAN!...

– Nor da!! –otz-ogin zuan etxe-nagusiak, garai artako deiak ikaraturik.

– Gurmendi'ko sorgiña!...

– Zer dakarzu!...

– Gosea!

– Norena, zuk jan bearrik ez ba'dezu!...

– Nere lagunena!

– Gure soro, sagasti ta oilotegietan lapurretan dabiltzan arrotzak ez dira gure lagun!...

– Arren, egun batez emaezu irin apur bat; mutiko txikiena gaixo dago ta!

– Ala ba'da... –dio ata rikiaz errotetxeko jabeak– lakaritxo bat artirin emango dizut...

Urrungo gabea, berriz...

DAN! DAN!

– Nor da!!

– Gurmendi'ko sorgina!...

– Zer dakarzu gaur!...

– Besteren gosea ta nere bildurra!

– Besteren gosea esagutzen det, zure bildurraren borri nuen oraindik izan!

– Atzerriko bi sorgin egin dirade nere etxeko jabe!

– Nork ekarri ditu!

– Nere lagun ziradenak!

– Nork ekarri zituan beraiek!

– Neronek, zoritxarrez!....

– Damu al zera orain!

– Bai orixe!!!...

– Zer derizkiozu!

– Gaurkoz, agindu diratena bete: zure oilaxko bi eraman, zu neretzaz kupitzen ba'zera; biar, al'0badegu, atzerrira bota!

– Gaur bere ezana egiten ba'dezu, biar etxea zureganatzen zailago!...

– Bai, bañan!...

– Bildur al'zera gaur!... Gaurko bildurra aberaztuko da biar!... Ez dizut ezertxo ere emango!... Zoaz deabruaren laguntz eske!...

– Bañan, arren!...

Urrungo gabea, berriz...

DAN! DAN!

– Gurmendi'ko sorgiña al'zara!!...

.....

DAN! DAN!

– Nor da garai ontan!

.....

- Erderaz dio zerbait, Joxe-Iñixio –dio bere emazteak.
 - Ala da. Ez diot irikiko. Gurmendi'ko sorgiñari ukatu diotena ez diot atzerrikoari eskeñiko!....
 - Entzun al' dezu zarat ori! Kalteren bat egingo digute orain!...
- Arreskero beren bi semetxoei ortzak, banan-bana, eroritzen azi zitzaizkien –Ara atzerriko sorgiñak guretzat eskatutako kaltea –zion emazteak Joxeiñixio'ri. Gure semetxoak ez dute errurik!
- Ez da guk ere, gure etxean gu jabeak izan nai izatea ez da eskubidea baizik...
- Neguauren urren udaberria ta onen ondoren urtarorik beroena: udara. Urtaro au asi ordurako, euskotarrok antziñatik ospatzen degun egun berezi bat gure egutegian, Eguzkiaren omenez gure gurasoak ospatzen erakutzi diguten Jon Donearen aurreguneko sua pixtu zuten, gaur lez, "Sasi-Errota" ta inguruko beste baserri guzietako umeak.
- An omen zebiltzen danak kinkirriñeraka suaren aldamenean, goieneko makil batean zarpantzar arlote bat zintzilika jarrita zeukatela....
- Ontan MAITAGARRI azaldu omen zitzaien eta "SASI-ERROTA"ko bi umetxoai batere miñik eman gabe ortz bana kendu a sutara boteaz, danak arriturik entzuten zutela, esan omen zuan:
- "ANDRE-MARIE, TORI ORTZ ZARRA TA EKATZU BERRIE", au esaten duten umei ortzak berrituko zaikiete.
 - Ta ara nola, Joxeba, –jarraitu zuan aitona– arrezkero ume guzien naia lortzen dan. MAITAGARRI'ri eskerrak...
 - Aitona, ta Gurmendi'ko sorgiñari zer gerta zitzaion?...
 - Ez degu geiago jakiterik izan, bañan Joxe-Iñixio'k oilaskoak ukatu zizkion gau artan bertan atzerriko sorgiñak eraildu zutela diote...
 - Eta, atzerriko sorgiñak zer egin zuten gero?...
 - Aiek...., ez dakit ba'.... oraindik bizi dirala uzte det...
 - Au bildurra.....!!

Erritar [Martin Ugalde]